

UEU, 2022ko ekainaren 27

## KANPO LANA: BADA ZEREN

### 1. OROZKO

Herri menditarra, Gorbeia pean

1910ean 3220 biztanle zituen / 1981ean 2014 biztanle / 2016an 2640 bat biztanle

### 2 BITARTEKARIAK – INFORMATZAILEAK – GALDETEGIA

Orozkon 1985etik 1991era arte ibili, bakanka. Helburua tradizio zaharreko mitoak biltzea zen eta, beraz, informatzaile gehienak adinekoak ziren, hamasei bat, gehienak bi aldiz elkarrizketatuak.

Berriemaileengana heltzeko lagunen lagunek lagundu ninduten. Bitartekari horiek, ezinbestekoak izan ziren, eta ez ditut inoiz aski eskertuko. Laudioko Ikastolako ahizpak Garirengana eraman (Jose Ramon Garigorta), eta hark Jose Angel Aramendirengana, gidari eta informatzaile bilakatu zena.

Orozkoko ostatu batean Garirekin hitzartu eta morroi desatsegin batek, erdaraz: “Claro, a preguntar al aldeano, ahora esta de moda y se saca dinero...”. Beharrik, Garik lehen barriemailearengana eraman, Goraitzeko Justo Respaldiza, eta harrera ezin hobea egin zigun. Hurrengoek ez ziguten hutsik egin: esan gabe doa dena zor diedala.

Nola jokatu? Besteen etxera eske joan eskale ezjakina, eta haiek emaile jakitunak direla gogoan atxiki behar. Jendetasunez azaltzeko da nor eta nongoak garen, zer helburu dugun eta nola eta zergatik interesatzen zaigun gaia.

Gero berez doa gauza. Entzun arau beste galdera asko datoz, zehetasunak eskatzen... Askotan informatzaileek berek erabakitzen dute zer kontatu, haientzat inportantea dena.

Philippe Descola antropologoak, Amazoniara joan baino lehen,

aholkua eskatu zio Lévi-Strauss bere irakasleari. Bere egitasmoa azaldu zion, Achuar amerindioek beren ingurunearekin dituzten harremanak aztertzea. Eta agurtzerakoan esan zion ikakasleak: “Utz ezazu terrenoak eraman zaitzala”(«Laissez-vous porter par le terrain, Dejese llevar por el terreno»)

Terrenoa informatzaileak ere direla uste dut.

### 3. KANPO LANAREN INTERES BEREZIA

Kontalarien presentziak indartu egiten ditu kondairak. Informatzaileek sinesten zutenekin ikasiak dituzte eta “tradizioko” transmisioaren azken katebegiak dira. Haien kontatuta, entzulea biltzen dute mitoek.

Motibazio berezia ematen du horrek; bai gaia gogoetatzeko ere eta kondairetatik aldentzen diren interpretazio liluragarriak ekiditeko. Anbotoko Señoreak “kanpoak deabrutzen ibili” zela (Etxebarria Aiesta) aditu ondoan ez da ondorioztatzen Mari Euskal Herriaren zaindaria dela, edo matriarkatuaren adierazlea.

Batez ere, kanpo laneko harreman zuzenak kondairez haraindiko gaiak azalarazten ditu, bilduma zaharretan gutxi aipatzen diren inguruari buruzko xehetasunak.

Oso garrantzitsuak dira terreno fisikoa (paisaia, orografia), terreno mentala (berriemaileen sentimenduak) eta denbora, kronologia.

A) Berriemaileek garrantzi berezia ematen diete lekuei, non gertatu diren gauzak eta noiz.

B) Noiz eta non entzun dituzten kondairak, nori kontatu eta kontalariak sinesten zituenez.

C) Istorioak esateaz gain, haietatik zer pentsatzen duten adierazten dute, zer sentimendu inspiratzen dieten, sinestekoa den ala ez; sinetsi gabe ere istorio horiek estimatzen dituztenez eta zer inportantzia ematen dieten. Holako datuek erakusten ahal dute zerk egiten duen mitoen sinesgarritasuna, sinesteak zer garrantzia duen transmisiorako, sinesten dena transmititzen baita batez ere.

### 3. A. LEKUAK ETA GEOGRAFIA: AXPURUKO FAMILIARIAK, SIMETRIA PAISAIAN ETA KONDAIRETAN

Orozkon mito-leku asko badira eta informatzaileek askotan zehazten dute gauzak non gertatu ziren, zein etzaldetan, zein menditan, zein harpetan. (Adibidea: Goreitzeko Justo Respaldizari auzo batek behin esan zion: “Anbotoko Señorea pasatu dok Egurrurtu gainetik! Oraintxe Gorbeiaiko Supelegorreko kuebara joan izango dok. Eta han egotaldiren bat egin eta joango dok Anbotora, Anbotoko Atxera”. Baiki, Egurrurtu (Egurrigartu) Goreitze auzoaren eta Supelegorreren artean dago.)

Oso ospetsua da Orozkon Axpuruko abadea. Antzinako pertsonaia da eta familiariak (prakagorriak) zeuzkan - Orozkon euliak (Zuberoan bezala). Orratzontzietan gordetzen dira eta, askatzen dituenari lana eskatuta, berehala bururatu eta berriz eskatu, askatu dituenak atzera sartzen jakiten ez badu.

“Urduñako zezenketa eta Bahean ura” pasadizo xebreak kontatzen dira abade horretaz - mitologiak mintzatuz beharrezkoa da mitoak kontatzea -, eta ikusiko dugu istorioa nola txertatzen den orografian. Orozkoko bertsio desberdinen bilduma laburtua eta batura hurbildua da honako hau:

AXPURUn, Untzuetapikuaren azpian, orain urte asko, atxina, abadea ei zegoen. Abadea eta neskamea. Eta abadeak familiariak ei zeuzkan, jostorraz ontzi edo kutxatxu batean sartuta. Gorbeian hartzen (kuxuten) ei zirean, San Juan egunean, Aita gurea eta Ave Maria atzerantza esanda.

Eta ba, “Ocho Mayotan” Urduñan zezenak eta, krideak esan ei zuen:

- Ai, oraintxe nor egon leiken Urduñako zezenak ikusten! Eta abadeak:

- Zer ba, joan gura dozu ala?

- Bai joango nintzateke.

Atera ei zituen besteok (familiariak) eta ensegida, airean lainoren bategaz plantatu ziren Urduñako plazaren ganean eta handik ikusi ei zituzten gan-ganetik zezenak. Eta gero bide beretik etxera.

(Horrela neskameak jakin zuen abadearen familiarien berri).

Axpuruko Abadeak Muruetako elizan ematen zuen meza, eta neskameak ikusten zuen mezatik etorte orduan, leku batean gauza bat hartzen zuela. Sorotzi egin zuen eta kajatxu bat topatu zuen. Behin, ugazaba kanpoan zegoen batean, (Muruetan meza emoten), zabaldu egin zuen kajatxua. Eta zabaldu orduan familiariek urten eta dana ei zan moskeak eta aparejuak; eta beharra (lana) eskatuten zioten emakume horrerri. Eta beharra eskaturik, ba, Axpurun urik ez, hor mendi puntan dago, eta ura ekarteko agindu zien.

Ura urrun eta aldapa handia... Nafarrondoko errekatik (200 metro beherago) “iiiiiea”, lainoan altzatu zioten ura. Eta barriz beharra eskatu, hegaz buruaren inguruan. Orduan bahea emon zien, hartan ekarteko ura.

Zer egin zuten prakagorriek? Bekorotzagaz eta lupetzagaz (lohiaz) bahearen zuloak tapatu, bahean ura ekarri eta Axpuruko katxarroak danak bete: gehiago ontzirik eukin ez emakumeak, eta ezin despatxatu, ez zekien kutxatxura sartuten atzera. Eta etze hori urez beteta.

Eta abadeak meza emoten egoan lekutik igarri ei zuen: etorri zan, danak (euliak) batu ei euazan eta akabatu zan asunto hori (Sofi Etxebarria, Pablo Aramendi eta Moises Larraondoren bertsioen bilduma<sup>1</sup>

“Bahean ura” tipoa Zuberoan ere kontatzen zen (Eskiulan) eta Albreten, zehaztu gabe nola egin zuten familiariek ura karreatzeko. Barandiaranek bi bertsio dakartza (Orozko eta Kortezubikoak), haietan familiariek ez dute lortzen bahean ura ekartzen.

Axpuru Untzueta mendiko maxelan dago. Eta aurrez aurre, erreka bestaldeko maldan, Murueta gaineko gailur batean, Santamarina ermita, eta han beste istorio bat.

Santamarinan fraile bat egoten zen, apezpikuak hara zigortua gona asunto batengatik. Krida bazuen hark ere. Behin krida kanpoan zenean, fraileak ahuntza batu (jeitsi) eta, galdallatxo batean, sutan ezarri zuen esnea. Irakiten hasi eta, hazten eta

hazten, esnea gorantza eta fraileak ez zekien non sartu; behereko etzaldera joan zen, Izartzara, ontzi gehiagoren bila; eta itzuli zeneko, ez zen gehiago esnerik galdallatxoan, dena ihes eginda. Horregatik esaten da “Andra Santa Marina, gitxiagaz asko egina”.

Axpuruko eta Santamarinako istorioak parekoak dira eta, aldi berean, alderantzizkoak.

Parekoak, bi abade eta bi krida. Simetrikoak eta inbertituak, pertsonaien izaerak: Axpuruko kridak txandrio egiten du abadea kanpora joanda; Santamarinako fraideak txandrioa egiten du krida kanpora joanda. Axpuruko abadea ernea bezain ergela da Santamarinako frailea.

Paisaian ere simetria aurkitzen da Axpuru eta Santamarinaren artean. Axpuru Untzuetapiku azpian, Altube errekaaren ekialdean / Santamarina, mendebaldean Gesuri tontorraren azpian. Batean gaztelu bat / bestean ere bai, omen.

Gero, Santamarinako istorioan Axpurukoaren irudi nimiñotua dela esan daiteke, Frailearen galdallatxo Nafarrondoko trokaren miniatura dela: familiariek Nafarrondoko trokatik ura altxatu bezala, gorantza hazten da galdallatxoko esnea. Eta gero alferrik isurtzen dira, eta galtzen, bi likido preziatuak.

### 3. B. DENBORA: MITOAK NOLA GAURKOTZEN DIREN

Euskal herriko kondaira mitiko asko (Axpurukoa ez, baina) denbora aski hurbilean kokatzen dira, lekuko edo protagonista batzuek izen-deiturak dituzte, kontatzailearen aitita-amamen denborakoak izaten dira, auzoak ere zenbaitetan. Hurbiltasun horrek du gertakarien egiatasuna bermatzen.

Mito bat hurbiltzeko modu bat izaten da pertsonaiak jende garaikideetan “berraragitzea”. Maiz mekanismo honen bidez: “amamak kontatzen zuen” bilakatzen da “amamaren garaian gertatu zen”, edo “amamak ikusi zuen”, eta, haratago joanez, “amamari gertatu zitzaion”.

Lehen adibidea ikusteko eskurtsio joango Baxenabarrera, Garazi aldera. Salvatoreko eliza Mendibeko bortuan dago, Iratiko bidean

(Mendibetik 10 bat kilometrora hegoaldera buruz) 890 metro gora. Han bada Saindia (Sandua), Salvatoreko Saindia.

Donapaule ondoan den Bithiriñako Inhurri etxean bi neska-mutil zeuden sehi. Arrats batez, artoxuriketan ari zirelarik, mutila ohartzen da haitzurortza (bi hortzeko haitzurra) ahantzi duela alorrean, eta haren beharra dute. Baina gauaz inor ez da ateratzera ausartzen; mutilak parioa (apustu) egiten du, bost sos emango dizkiola joaten denari. Neskatoak baietz, eta badoa. Orduan mutila bere sosez doloturik erraten du: "Deabruak eramane baleza bere haitzurortzarekin!"

Berehala zerbaitek hartu zuen neska eta, airean zeramala, ate aitzinean pasatzean, haitzurrotxa bota zuen oihukatuz: "Horra hor falta zenutena, eta ni ezin ikusizko esku batek eramaten nau, nire diru goseagatik". Bithirindarrak neskari segitu zioten Lartzabaleraino (10 km) -ezin gehiago. Eta beti airean aitzina zihoala Salvatoreko elizaren gainerat heldu zenean, neskatoak oihu egin zuen: "Jondone Salvatore, salba nazazu!" Orduan zeinua (ezkila) hasi zela bera jotzen eta, izpiritu gaiztoak askaturik hantxe baratu zen Saindia. Han berean egin zioten ttattola bat eta haren irudia ezarri zuten elizan, eta han gurtzen zuten <sup>2</sup>.

Istoria horretaz "kanpo lana" egin zuen Barbier garaztarrak, eta Maria Beltxa bithirindarrak kontatu zion legenda, aitari entzun bezala. Baina ez zen gogoratzen aitak nola erran zion, "segitu zuten" ala "segitu ginuen", ea hura ere ibilia zenez neskaren atzean. Barbierrek Maria Beltxari eskatu zion kemen bat egin zezan oroitzeko. Eta biziki ongi oroitzen baitzen aita zein hunkitua zen gertakari tragiko hori aipatzean, pentsatu zuen seguraski "segitu ginuen" erran ziola<sup>3</sup>.

Horrela emozioak kontalaria lekuko bilakarazi zuen.

Hurrengoan, aitita baten auzoari gertatu zitzaion.

Arbaitzako Santosi aititak kontatzen zion Nafarrondoko Maria bere alabagaz Jentil Zuloko trokan gora joan zela eta tropezatu zituela laminak errekan, arropa garbituten eta orraztuten. Eta ikusi orduan, laminak karraka sartu zireala Jentil Zuloko kobara eta utzi zutela orrazia erreka bazterrean ahiztuta. Orduan ama-alaba haiek hartu orrazia eta eroan eudien etzera.

Eta gero gaubean etzeko teilatuan, laminak gedarrez (oihuz) eta.

- Mariaaa...! Mariaaa...! Ekarri egizu nire orrazia, ezpabere nik egingo zure askazia...!

Eta danak ixilik eta, bildurragaz.

Eta paratu barik, tximiniako zulotik laminak, goiti eta beheiti gedarrez (laminak lotuak dira tximiniari maiz). Harik eta orrazi hori hartu eta bota zieten arte. Eta orduan, ja ixildu egin zirean guztiz laminak, eta martxatu.

Hori aititak entzun zion pasatu zitzaionari, bera mutiko txikia zenean (1880an edo izango zen). Edo beharbada Mariaren alabari entzun zion.

Maria Luisa, beste orozkoar baten hitzetan amamari gertatu zitzaion (kontalaria protagonista bilakatu).

Nik entzunda nire amari zelan etorten zirean... (bere amak kontetan eutsena) eta han, ba, bajatuten zirean (laminak) tximiniatik behera, bera egoten zanean beti, ba urdaia frijitan zartanean...<sup>4</sup>

### 3. C. TRANSMISIOA

Jendarte tradizionalen, aisialdiaren parte bat zen istorioak kontatzea. Kontaketaz beste entretenigarrik ez zutela diote berriemaileek, ez irratirik, are gutxiago telebistarik. Eta bi tresna horiei leporatzen diete maiz transmisioaren etena. Argindar eza ere gogoratzen zuten, gauaren erdian, ilunpean, kontakizunek zirrara handia eragiten zutela, beldurrezko kontakizunek indarra handiagoa dutela (eta gauza miragarriak sinesgarri egiten dira orduan).

Ez ziren bakarrik mitoak, jakina, eta kantuak ere leku handia izan du - Iparraldeko etxeetan kaierrak baziren hitzak ikasteko.

familiaren barnean edo etxean kontatzen ziren, askotan zaharrek (amamak, aititak...), edo gurasoek haurrei; baina ez bakarrik haurrei, auzoek elkarri ere bai.

Transmisio oso hurbil honetatik haratago, kanpotik datozen

kondairak ere badira. Horretan mitoen difusioa azaldu behar da, hau da, kondairak jende-talde batetik bestera pasatzea eta hartzaileek beren egitea. Horrela, munduan zehar ibiltzen dira kultura elementuak. Urrunera joan gabe, baserritar gaztetxoak neskame eta mutil joaten ziren, askotan beste herri batera, eta aski urruneko hirietara ere; eta beren lan-lekuan entzuten zituztenak etxera ekartzen zituzten gero - bide batez etxekoak ere kanpora eroaten, naski. Informatzaileek holako bidaien berri eman didate behin baino gehiagotan, nola kridak izan diren kondairen garraiatzaileak. Arkotxan krida egon zen Egurrurtuko Gabrielak bere auzo Sofiri kontatu zion neskame egon zen etxeko anderearen haurrak hiltzen zituela sorgin batek, hark ikusia zuela umea negarrez, emakume hori agertzen zenean... Sofik soldadu joaten ziren mutilak ere aipatu zituen difusio eragile gisa (Frantziako folklorista zenbaitek azaltzen dutena).\_

Horrez gain, baziren une berezi batzuk, transmisio-instituzio edo deitzen ahal direnak. Haietarik bat ziren hilbegirak (hilbeilak): norbait hil eta, haren etxera joaten ziren auzoak, gauaz; otoitz egiten zuten, zerbait jan eta edan eta, Orozkon bederen, kontu kontari aritzen ziren. Orozko Olarte auzoan bazen Pedro Mari Sautua sakristaua, Barandiaranen informatzailea, izugarri kontalari ona. Haren alabaren lagun batek eman zidan hilbegira haien berri: Pedro Mari etortzen ez zenean, denak oso triste zeudela, aspertzen ziren!

Gabon gaua ere parada ona zen auzoak biltzeko; afaldu ondoan kartetan aritzen ziren, eta istorioak kontatzen pasatzen zuten denbora.

Garrantzitsuak eta Iparraldean aipamen handikoak izan dira artoxuriketak: artoa bildu eta oskola kentzeko, arratsetan biltzen ziren auzoak, behin etxalde batean, hurrengoan bestean, eta hola denen lana bukatu arte. Mota guztietako solasak erabiltzen zituzten haietan, eta umeak ere ibiltzen ziren inguruan, belarri luze, ea zerbait kurruskantea bilduko zuten.

Ohartzeko da Salbatoreko Saindiaren istorioa, artoxuriketa batean kontatzen zelarik, "mise en abîme" egiten zela, matrioxka egiturazkoa.

### 3. D. SINESTETIK EZ SINESTERA



Mitoak jendarte bateko lagun gehienen gogoan direnean, sineste kontua ez zen planteatu ere egiten. Gurean baina aspalditik eszeptikoak izan dira, eta 1980an berriemaile askok ez zuten gehiago sinesten. Horren zergatia azaltzen zuten batzuek, baita sinestetik ez sinestera zelan pasatu diren ere eta horretan zer pizu izan duen inguruko iritziak.

Hogeigarren mendeko Orozkoko baserritarrek beren bizitan pasatu dira aurre-industriako arotik industria-ostekora, sekulako aldaketak bizi izan dituzte, kulturala ere.

Oketabeheitiko Florentziok dio ignorantziagatik sinesten zutela: ez zuten inoiz beren auzotik irten eta zaharrek kontaktzen zituzten istorioak sinesten zituzten. Gero eskolara joan ziren, jakin zuten eta ez gehiago sinesten.

Bestela, konfiantzazko norbaitek kontatua sinesten da.

Santosek uste zuen: “Nik gaur balego abuelo difuntua bizirik, edo (...) orain hogeita hamar urte atzerako agureak balegoz bizirik, ziur nago eurek baino txarragoa izango nintekela sinistuten: osea, sinistuko neuke oso-osoan, bete-betean egongo nintekete sinistuta gauza asko.”

Sinistuta ere, Eulalik dio ikusiak izan diren gertakariak ere ez dituela gehiago kontaktzen. Aranen giza-katu bat bazela gogoratzen du: “Eta ez zen imajinaziorik, lapurtzeko katu paretan zan berak gura zuen guzti-guztietan”. “Nire amak askotan ikusia. Eta nik hori kontetaketzat bere ez dot eukiten, ze esango dau jenteak: “Hori burutik dago, zoraturik dago hori andra hori!” Baina hori beridikoa (da) .... Hori ikusia” (amak ikusia, beraz egiazkoa).

Kondaira hurbil kokatu izanak sinestea bermatu duela esan dut arestian. Eta sinestea izan da transmisioaren gako. Kontua da, gehiago sinesterik ez denean, nola egin transmisioa (A. Erkorekak dioen moduan, gure mitologia “luna park” bilakatu gabe).

#### 4. ETA ORAIN ZER?

Orain ez artoxuriketarik, ez hilbegirarik. Gabon gauean biltzen

diren familiak edo auzoak istorio zaharrak kontatzen aritzen ote dira?

Munduan sineste asko galdu dira, baina haien memoria atxiki dute baten batzuek. Eredu ezagunenetakoa da Antzinako Greziakoa. Historiagile eta arkeologo armada batek aztertzen du eta greziarrek nonahi gogoratzen dute beren iragan hori eta eskolan erakusten dute. Grekera demotikora ekartzen dituzte mitoak eta liburu irakur-errazak egiten dituzte, laburtuak baina beste deus aldatu gabe; ez dituzte istorioetan asmazioak sartzen eta gero iradokitzen horrelakoak zirela antzinakoak.

Greziar eta euskal mitologia aldera al daitezke?... Hori gabe ere, ez dut dudarik batak bezainbeste errespetu merezi duela besteak. Hemen kondaira asko edulkoratu egin dira, apaindu, elementuak gaineratu, interpretazioz interpretazio aldatu. Batzuetan erdaraz idazten dira holakoak, eta gero berriz euskaratzen ikastoletan erabiltzeko edo euskaldunak kontsolatzeko. Azkenean emaitzak urrun dira tradizioko originaletatik, eta kondairak bidean luma eta jatorriko ezaugarri asko galdurik heldu dira denengana. Horretan inork ez du ezer irabazten.

---

<sup>1</sup> Jatorriko bertsioetarako, Arana, *Mitoen bilakatzea* <https://www.booktegi.eus/liburuak/mitoen-bilakatzea/> VI kapitulua “Prakagorri familiariak”.

<sup>2</sup> J. F. Cerquand, *Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak* Gatzuzain, 2017: 140.

<sup>3</sup> J. Barbier, 1921 "Chaindia", *Gure herria*, 428.

<sup>4</sup> Atal honetako gaiaz, Arana, *Mitoen bilakatzea*, VII kapitulua « Mitoen arraberritzea » (ikus 1 nota).